ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 9a, ostirala • 116 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Osorik ezestea Alain González Cabrejasek aurkeztutako alegazioak, eta onartzea 2023ko EPEan ingurumeneko teknikari plaza bat betetzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda

Añanako Kuadrillako lehendakariaren 2026ko urriaren 1eko 166 zenbakiko ebazpenaren bidez, laburbilduz, honako hau erabaki da:

Lehenengoa. Nerea Larrazabal Intxaurberen errekerimendua behar bezala betetakotzat jotzea, eta, ondorioz, pertsonen zerrendan behin betiko onartzea.

Bigarrena. Ez da betetzat jotzen Salma Aidoun El Amrani, eta, ondorioz, behin betiko baztertzea pertsonen zerrendatik.

Hirugarrena. Osorik ezestea Alain González Cabrejasek (sarrera-erregistroa: 691 zk., 2026ko irailaren 11koa) presidentearen 143. ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak.

Laugarrena. Industriako ingeniari teknikoaren tituluak, mekanikako espezialitatekoak, deialdiaren lehenengo oinarrian ezarritako titulazioaren betekizuna ez duela egiaztatzen deklaratzea, nahiz eta MECESeko 2. mailarekin bat etorri, hau da, ingurumen-zientzietako edo ingeniaritzako gradu-titulua izatea.

Bosgarrena. Interesdunak alegatu duen unibertsitate-masterra edukitzeak ez du esan nahi oinarrietan ezarritako titulazio-baldintza bete denik, ez baita egiaztatu ingurumen-zientzietako edo ingeniaritzako gradu-titulurik duenik, ez eta ondorio hori sortzen duen baliokidetasun juridikorik ere.

Seigarrena. Ondorioz, Alain González Cabrejas ingurumeneko teknikari plaza bat betetzeko hautaketa-prozesutik kanpo uztea, 2. bazterketa-kodearekin: "TITULAZIOA. Ez da egiaztatu oinarrietan eskatutako titulua duenik."

Zazpigarrena. Jasota utzi behar da ebazpen hau deialdia arautzen duten oinarriak eta enplegu publikorako sarbidea arautzen duten berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak aplikatuz hartu dela, hargatik eragotzi gabe irizpide bera aplikatzea egoera juridiko berean dauden hautagai guztiei.

Zortzigarrena. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda ezartzea, I. eranskinaren arabera.

Lehendakaritzaren 166 zenbakiko ebazpena osorik argitaratuta dago Añanako Kuadrillako egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta haren webgunean. Deialdiaren seigarren oinarriaren arabera, ALHAOn argitaratzeaz gain, ebazpen hori osorik argitaratuta dago Añanako Kuadrillako egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta haren webgunean.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera (lege hori 2003ko abenduaren 23ko 19/2003 Legeak aldatu zuen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluarekin bat etorriz).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan aurreikusitakoaren arabera. Horrez gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkez daiteke. Guztiek jakin dezaten ematen da horren berri.

Ribabellosa, 2026ko urriaren 1a

Lehendakaria
RUBÉN TORREMOCHA GALÁN

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. IRANSKINA

ONARTUTAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Abizenak	Izena	NAN
LARRAZABAL INTXAURBE	NEREA	*****460E
ÍÑIGUEZ ZOTO	AINHOA	*****012R
OCHOA URIARTE	AINHOA	*****041H
LÁZARO DE MORA GRANADOS	AITOR	*****872V
DEL OLMO LEÓN	HODEI	*****580V
FERNÁNDEZ DE LARREA RODRÍGUEZ	IKER	*****802Y
CUESTA LÓPEZ	NEREA	*****905F
RODRÍGUEZ RENTERÍA	OIER	*****583P
SALAZAR GÓMEZ	TANIA	*****011Y
UNZALU ORTIZ DE ZÁRATE	AMAIA	*****958G
MORENO GONZÁLEZ	ANA	*****875N
MARTÍNEZ DE ESTARRONA ARENAZA	EKAITZ	*****109D
FERNÁNDEZ LÓPEZ DE ALDA	GONZALO	*****794L
ZORRILLA GARCÍA	YOLANDA	*****211F

LISTADO DEFINTIVO DE EXCLUIDOS/AS:

Abizenak	Izena	NAN	Osagarria
GONZÁLEZ CABREJAS	ALAIN	*****644W	***Ez du aurkeztu eskatutako dokumentazioa***
AIDOUN EL AMRANI	SALMA	*****874Q	***Ez du aurkeztu eskatutako dokumentazioa***

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.09 05:43:29 Z